

ZIURTAGIRIA

Tokiko Gobernu Batzarraren erabagia

Gotzon Bareño Duñabeitiak, Bermeoko Udaleko idazkari nagusiak, ziurtatzen dot, 2026-04-14(e)(a)n, TOKIKO GOBERNU BATZARRAK erabagi hau hartu dauela:

4.- 2026KO ANDRA MARI ETA SANTA EUFEMIA JAIETAKO KARTEL IRAGARLEAREN 2026KO LEHIAKETAREN DEIALDIA ONARTZEA

Xedea

Andra Mari eta Santa Eufemia jaiak iragartzeko kartel lehiaketaren 2026ko deialdia zabaltzea onartzea

Aurrekariak

Lehenengoa: 2025eko apirilaren 25eko Osoko Bilkuran, Andra Mari eta Santa Eufemia jaiak iragartzeko kartel lehiaketaren oinarriak onartu dira eta erabaki honen iragarkia 2025eko maiatzaren 14ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu da.

Bigarrena: 2026ko urtarilaren 29an, udal Osoko Bilkurak, 2026-2028 urteetarako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartzea erabaki du. Erabaki horren iragarkia 2026ko otsailaren 5eko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu da.

Hirugarrena: 2026ko martxoaren 24an, Kontuhartzaileak 22/2026 zenbakidun aldeko fiskalizazio txostena egin du.

Argudioak

Lehenengoa: Gastuak beharrezko kontsignazioa dauka (RC 2026/000218)

Bigarrena: Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 23. artikulua eta erlasionatutakoak.

Hirugarrena: Dirulaguntzen deialdiak onartzeko eta ebazteko ahalmena Alkatetzarena da baina 2026ko otsailaren 26ko 1131 zenbakidun Alkatetza Dekretu bidez Tokiko Gobernu Batzarrean delegatu da.

Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: Andra Mari eta Santa Eufemia jaiak iragartzeko kartel lehiaketaren



2026. urteko deialdia zabaltzea onartzea.

BIGARRENA: Deialdi honen publizitatea Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialera bideratzeko agindua ematea Kultura eta Hezkuntza Sailari.

HIRUGARRENA: Deialdi honen publizitatea Bermeoko Udalaren web gunean txertatzeko agindua ematea Berrikuntza Sailari.

LAUGARRENA: Hurrengo Osoko Bilkuran erabakiaren berri ematea.

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, ziurtagiri hau idazten dot, erabagia agertzen dan akta behin betiko onespeneraren menpean dagoela ohartarazota (Toki Erakundearen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoa onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 EDaren 206. artikulua arabera), Nadia Nemeh Shomaly alkatearen aginduz eta oneretxiaz.

Orri-oinean sinatzailea eta data



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07EA0015D4E100W1U8Y9U3B9M3

Sinadurea eta data

GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 14/04/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 14/04/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU
ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 14/04/2026 12:12:48

EXPEDIENTE ::
2026IDA_ERA_0052

Fecha: 13/03/2026

Lekua: Bermeon

Erregistro unidadea:

Erregistro nagusia

CSV: 07EA0015D4E100W1U8Y9U3B9M3

